

Beñat Mendia zeanuriztarra Bizkaiko txapelkun esku pelotan

10. orrialdea

Margolari arratiarren erakusketea Igorreko Kultur Etxean

Maite Artabe Areatzakoak, Maritere Bilbao Arteakoak, Marisol Calzada Igorrekoak eta Tere Uribe-Etxebarria Dimakoak euren azkenengo artelanak erakutsiko dabez urri bigarrenaren 2tik 30era Igorreko Kultur Etxean egingo dan Lan-Meta izeneko erakusketan. **13. orrialdea**



Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea hilaren 3an

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

237

2015eko urri bigarrenaren 1a hamabostekaria
www.begitu.org

Miren Idigoras Argazki Lehiaketako irabazle



Miren Idigorasen argazki irabazlea.

❗ "Strasbourg" izeneko argazkiak irabazi dau aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketea. Estrasburgon aterata dago abuztuaren 25ean eta uriaren ikuspegi originala emoteaz gainera, epaimahaiak irudiaren iradokitze ahalmena baloratu dau saria emoteko.

Bigarren saria Aitor Arnaizek eskuratu dau "Gaztetatik ikasteko grina" argazkiagaitik.

Aurten, 28 arratiarrek konpartidu gura izan dabe BEGITUREN irakurleakaz euren oporretako momenturik ederrenak eta horretarako 57 erretratu bialdu dabez. Lehiaketan parte hartu daben erretratu guztiak gure webgunean egongo dira ikusgai. Bitartean, zenbaki honetako erdiko orrialdeetan, argazki finalistak ikusi daitezke eta Arratiatik mobidu barik, mundu zabalean zeharreko biajea egin.

8. eta 9. orrialdeak

Manu Merillas eta Laura Orgué irabazle GSTn



Manuel Merillas Zeanuriko helmugan.

Argazkia: Suzien Mendi Kluba.


Manu Merillasek gizonetzkoetan eta Laura Orguék andrazkoetan irabazi dabe aurtengo Gorbeia Suzien. Ibilbide barria eta gogorra izan dau, baina gizonetzkoetan zein andrazkoetan lehenengoak segundu batzuk bakarrik atera eutseezan bigarrenai. Holan, Manu

Merillasek 2:57:01 denporea egin eban eta Tofol Castenyer handik 12 segundutara sartu zan helmugan. Andrazkoetan, Orguék 3:29:26 markea egin eban eta Paula Cabrerizo bigarrenak 12 segundu gehiago.

Edizino honetan arratiarrak partaidetza handia izan dabe. **11. orrialdea**

ARANTZAZU

Sanfaustoak Arantzazun



Hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe Arantzazun udagoieneko herriko jaiak ospatuteko. Izan be, Arantzazuk sanpedroetan eta sanfaustoetan ospatzen ditu herriko jaiak.

Jai egitarauaren barruan, Arantzazuko Mugari Bira mendi martxea antolatu dau Arginatx Mendi Taldeak. **5. orrialdea**

ARRATIA

Emakumeen Mundu Martxea

Emakumeen Mundu Martxearen karabanea Europan zehar dabil martian Kurdistanetik abiatu zanetik. Urri lehenengoaren 28an Euskal Herrian sartu zan eta urri bigarrenaren 3an Arratian izango dogu. Martxa honetan,



163 herrialdetan banandutako 5.000 taldek baino gehiagok hartuko dabe parte; tartean Arratiako andra taldeak eta talde feministak.

Emakumeen Mundu Martxea 13:30ean helduko da Lemoara. Igorren 14:00ak aldean izango da eta harrera ekitaldia egingo deusie arratiarrak Kultur Etxean: bertsoak eta jantzak egongo dira. Gero, Arratiako lurak eta haziak emongo deutseez Mundu Martxakoai eta liburuan sinatuko dabe. Ondoren, Arratiako produktuak bazkaldu. Bazkalostean, berbaldia eta kontzertua egongo dira.

Emakumeen Mundu Martxak lau lan ildo jorratzen ditu: gorputzak eta sexualidadeak, sarean lan egin, sistemarteko indarkeriak eta bizitzaren iraunkortasuna. Azken hau da Arratian landu dana, elikadura burujabetasunaren alde eginaz. **5. orrialdea**

abereentzako janari bereziak



GOIMARR^{SL}

AGROARRATIA

BASERRIKO PENTSUAK - TXAKURRENTZAKO
PENTSUA - BASERRIKO TRESNAK
- ONGARRIAK, LURRAK, HAZIAK - FARDOAK
- LANDARE OSASUNERAKO PRODUKTUAK
- OILO ETA OILASKOAK - LANDAREAK

Pozueta Industria Poligonoa, 11J - 94 631 32 17
48.330 Lemoa (Bizkaia)

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ARRATIAKO GANADU FERIAK

Hilean lau feria egozan: Arantzazukoa, Arteakoa, Areatzakoa eta Igorrekoa.

Gaur egun Arratian ganadu feriak egiten badira be, urtean behin egiten diranak eta erakusketa izakera daukienak dira: Zeanurin sanisidroetan egiten dana, Diman egiten dana eta aurten Areatzan egin dana. Baina, orain berrogeta hamar urte ingurura arte hilean lau ganadu feria egozan: Arantzazukoa, Arteakoa, Areatzakoa eta Igorrekoa, hain zuzen be. Azken urteotan, behintzat, laurak zapatuz egiten ziran, honako orden hone-

tan txandakatuta: Arantzazukoa, hilearen lehenengo zapatuan; Arteakoa, bigarrenan; Areatzakoa, hirugarrenean eta Igorrekoa lauugarrenean. Hilabeteak bost zapatu baeukazan, bosgarren feria Arantzazun egiten zan.

Lau horreetatik aparte, urteko hiru feria berezi be baegozan: Zeanurin Kandelario eguneko behor feria eta sanisidroetan Zeanurin eta Igorren egiten ziranak. Gainera, domekero azokea egoten zan Areatzan.

Feria horreek baserritarrentzat egun handiak ziran, ganadua sal-

du edo erosteko guneak izateaz gainera, lagunak alkartzeko, tabernan bazkalduteko eta jai giroa bizitzeko aukera egokiak izaten ziran, goizean goizetik etxetik urten eta gauera arte ez ziran itzultzen.

XX. mendea aurrera joan ahala, alde batetik labrantzeak eta abeltzantzeak ordura arte ekonomian euki eben garrantzia galtzearen ondorioz, eta bestetik, errepide eta garraioen hobekuntzak trantzeak etxetik eta kortarik korta ibilteko ekarri eban erreztasunaren ondorioz, ganadu feriak indarra galduz joan ziran, eta hirurogeiko hamarkadan guztiz desagertu egin ziran.

Jon Urutxurtu



Felipe Manterolaren argazkia. Ganadu feria eta idi-probak Zeanuriko plazan. 1915-20 urterantz.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehen. 28tik urri bi. 4ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 5etik 11ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 12tik 18ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhua Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhua Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Lan istripu gehiagorik ez!

Egunero, laneko ezbeharren tasaren gorakadearen lekuko gara. Ia egunero lan istripuen inguruko barriak aktualidadearen espazio handia hartzean dabe. Eta Arratia ez da kanpoan gelditzen. Holan, pasa dan asteen, Igorreko Industrialdean dagoen Walter Pack enpresan gazte batek izandako lan istripuaren barri izan genduan.

Lehenengo eta behin LABetik gertatutakoa salatu eta gure babesa heldu arazo gura deusagu zauritutako gazteari. Baina esandako moduan, hau ez da gertakari isolatua izan. Lan istripuak, itxikeria eta enpresariaren irabazteko desioa oinarri daben enpresa modeloaren ondorio dira; langileak siniestralidadera kondetan dauzana. Holan, enpresarioren itxikeriaz aparte, prekariedadeak, azpikontratazioak eta beharginen prestakuntza faltak artean eragiten dabe lan

istripuen kopuruen igoeran.

Honeguz batera, istripuen erantzukizuna beharginen gain ixtearen saiakerea salatu gura dogu. Istripuak justifikatu eta beharginen jokabide eskasak atxakia legez jartzen saiatzen diralako. Baina justifikazio eta baieztapen honek errealidadetik urrun gelditzen dira. Ezin dogu ahaztu laneko osasun eta segurtasunaren araudia betetearen ardura enpresariena dala eta beharginoi bete arazotea exijidutea jagokula.

Horregaitik, edozein istripuren aurrean salaketa publikoa egiteaz aparte, gure helburua istripurik barriro be ez gertatzea izan behar da. Helburu horregaz, ezinbestekoa da beharginak kontzientzia eta aurrepausuak emotea. Gure esku dago langileak antolatzea, enpresa ordezkariak eta prebentzio delegaduak aukeratzea eta hau honen inguruan informau eta formatzea. Gainera, ezinbestekoa da enpresariari araudia bete dagian exijidutea.

ARRATIAKO LAB

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ehuntz uxu



Ahuntzen antzekoa izan arren, zerbidoen familiako animalia ugaztun hau basokoa edo uxoa da, hortik bere izena: ehuntz uxoa (euntzúxo, agoskatuta). Ule gorritzka dauka udan eta urdin edo gris modukoa neguan. Txikiak ditu adarrak eta buztana be. Batuaz, orkatz esaten da. Gero eta gitxiago entzuten dogu berba hau gure artean, baserriaren artean be gaztelaniazko "corzo" gehiago erabilten da. Barriz, gero eta gehiago ikusten dira ehuntz uxuak gure baso eta baserrien inguruetatik.

ERETXIA

Ez da kasualidadea



NORMA AGEITOS
Sexologoa

Neska bik proiektu txiki bat eta amets handi bat eukien buruan. Hau egia bihurtzeko Diputazioak eskeintzen eban laguntza proiektu baten parte hartu eben. Baina buruari hainbat buelta emon ostean ikusi eben ez zala nahikoa gogoagaz, pasinoaz gainera beselakoak behar dirala eta "nahi izatea" ez dala "ahal izatea".

Ez da kasualidadea neska bi honek euren proiektua eten behar izatea finantzaketa lortuko ez ebela argi egoalako. Ezta be neska bi honek gizarte eta osasun zientzien arlotik etortea neska izanda. Eta, gainera, euren proiektua, batez be, bardintasunaren arloan garatu gura izatea.

Ez da kasualidadea andron hankak dardarka hastea haundun geratu diran barri emoterakoan enpresako arduradunari, gizonetako irribarretsu kontetan daben bitartean.

Ez da kasualidadea andrea iraintzen eta jipoitzen dauanak, lan-ordainduaren mundutik be aldentzea andrazkoa.

Ez da kasualidadea Txinan neskatilak izatea jaiobarritan abandonu eta erailketen biktimak.

Eta, gainera, kasu honeen guztien atzean, kasualidadea bardina da: genero funtzio eta rolen balorazio sozio-ekonomikoa.

Andron lana, edozein izanda historiako momentu eta munduko leku desbardinetan zehar, beti joan da balorazio negatibo bateri estu lotuta. Baita, eta kapitalismoak aurrerantza egiten eban neurrian gero eta gehiago, podere falta bateri atxikia.

Holan ba, andra txinatar bat, andra jaiotzearen, ezin leike familiaren lur eta jabetzen herentzia jaso. Hori dala eta, seme-alaba bakarra izatekotan, andrazkoa izatea familiarentzat galera hutsa da, hainbeste kosta dana eregiten galdu egiten dalako.

Tratu txarrak jasoten dituanak bere dependentzia erabatekoa

zelan bilakatu dan ikusten dau, aldaketarako aukera gitxi izanik jada, ez daukalako baliabide ekonomiko propiorik be.

Haurdun gelditu danak baja ordez kaleratzea lortuko ez ete

dauan beldur da, eta errazoi osoagaz, ez litzatekelako lehena. Ez enpresa horretan, ez gure lurralde garatu honetan.

Eta neska bi horreek ez dabe finantzaketarik lortuko euren lanalorrak ez diralako ez puntakoak ez baliozkoak jotzen gizarte honetan.

Egoerea hau izanik, haserratu eta erantzun ordez, andron joera izaten da gure lana mesprexatearen buklean jarraitzea. Errazoi emotea. Gure lana isilean egiten jarraitutea, ordain larregirik ezta bardintasunik exijidu barik.

Eta holan, irakurle kutunok, gauzak ez dira aldatzen. Hortaz, oihiak berreskuratu daitez gogora ekarriko dot orain dala 86 urte jada andra batek aurkitu ebala gakoa. Andra idazleen garaiok galeraz galdetu eutsienean argi eta azkar asko ikusi eban Virginia Woolfek erantzuna: *Gela bat norberarena*.

Ez zan ohikoa garaiok andrak espazio propio eta pribadu bat izatea. Eta ez nabil espazio sinbolikoaz, espazio fisikoaz baino.

Ba egun, munduko leku desbardinetan, berdin diraugu, ez daukagu gure base material bat. Ez behintzat gizonezkoak daukiena beste. Eta egoera honen errazoi sexismoak bi bider kolpatzen gaitualako da: alde batetik, ez gaitu gura, ez gara sistema produktiboaren izaki prototipo egokia eta, bestetik, "gure lanak" ez dira baloratuak. Hortaz, gure espazioak ez daukie baliorik eta "guztion" espazioetan sarrera zangotrabaz beteta dago. Tira, bai, sarrera... igoera... jarraitzea... bidea zangotrabaz beteta dago.

Androk, baldintza materialak dira, alegia, dirua da gure balore eta helburu egin behar doguna! Desbardintasun ekonomikoan sexu errazoiagaitik eragina daukien legeak desegin behar dira... holan lortuko dogulako benetako bizitza duina: jatorriko baldintzak bardinduz.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enpresak Batz gure

MONDRAGON

LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Arratian VI. menderarte euskerarik ez?

Harriduraren harriduraz ikusi eta entzun genduan ETBk eguenero emitiduten dauan Vaskonia izeneko 1. programan entzundakoa.

Joseba Abaitua filologoak Lemoan agertzen dan monolito baten aurrean zerau inoskun: "Arratian ez zan VI. menderarte euskerarik egiten", beronen arabera, latinez eta zeltikoz berba egingo eben ordukoak.

Joxe Migel Barandiaran gizon jakintsuak, apaltasunez eta ondotoxo azaltzen ebazan sakon ikertutako hainbat gauza, eta beti be, kontu handiz esango euskun euskerearen jatorriaren nondikoa, eta oindio eta gitxiago adierazoko eban mende baten data zehatza. Baina orain eta hemen, antza, aita Joxe Migel Barandiaran baino ikertzaile "jakintsuagoak" eta aursardia handiagoak inongo ezbaierik barik jaurtikio dabez gure belarrietara gatx sartzean jakuzan teoriak.

Gai honetan, aditua ez banaz be, entzuten dodan guztia aintzakotzat hartu eta men egitearen aldekoa be ez naz. Beraz, libururen batean edo bestean eta harrizko banaka batzuetako idazkunetan agertu daiteken hori, zalantzan jartzen dot.

Jakina, orrizko eta harrizko idatzietan azaltzea bakarrik bada aztertu behar dan hori, gure hizkuntza oraintsukoa da, dokumenturik apenas dago inon eta. Oroitarrian agertzen dan horreek baino, Lemoatik gertu dogun Arlanpe eta Axlorren agertutako aztarnak, esanahia gehiago eta sakonagoa ez ete daukie ba? eta gure lurak damoskuzan milaka berben esanahiak ez ete daukie ba ezer esaterik eta argiterik?

Ataungo jakintsuak kontu handiz ikertuko ebana hain argi esaten ausartzen ez zana, orain, filologo eta historia-gile ilustrau honeek, ez daukie inongo arazorik ez eta bildurik be, plaut, ziurtasun osoz halakoak botateko.

Oraintsu baita irakurri genduan El Paisen, euskaldunak ez ei dira uste zan besteko zaharrak, 5.000 urte inguru, baina Arratiakoak antza 1.500 urte besterik ez, hemengo gure aititen aititak zer ete ziran ba! Eta euskerarik ez erabilen?

Gai honeetan, sakonezko ikerkuntza librerik egiten ete da, edota egiterik ete dago? Behar bada, gaurko asfaltoko eta biblioteketako ikertzaileak, lurak azaltzen deuskunari eta bertan dogun toponimia multzo zabalari gehiago begiratu beharko leuskie. Seguru nago, euskerearen nondik-norakoaren baliabiderako, lurraren bizitasunaren izenak eta zehaztapenak azterbide hobea emongo deutseela.

ZERTZEAN



ARITZ ZUBIATE

Furgonetarena

Orain urte asko ez dela, miresmenez begiratzen gintuzuen, gurera gonbidatzen genizuen, "iraultzaren banguardia", gerrari eusten zion herri bakarra Europa Mendebaldean. Orduan, eredugarri ginen...

Berandu konturatu ginen, irautea, ez dela irabaztea, baizik eta geldirik egotea; okerrera baino ez duela egiten hobetzen ez denak. Ordurako, alde eginak zineten zuen furgonetan.

Irakaspeta utzi zeniguten, herri guztietan dagoela gasolina topatu nahiez gero.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Kuadrila honek Santo Domingo de la Calzadan Santiagoko bideari ekiteko prest egoala ateratako argazkia bialdu deusku. Arratiar peto-petoak, Arratia futbol taldeko kamiseteta soinean, "Ai Arratie, gure Arratie" esaldia atzekaldean, egin eben bidea.

Urri lehenengoaren 13tik 19ra, Santo Domingo de la Calzadatik (Errioxa), El Burgo de Raneroraino (Leon), 7 etapa egin ebezan. Batzaz beste 25 km. inguru egunean taldeko gehienak. Txiki Marañoek barriz, ia bikotxa egin eban. Izan be, furgonetea eguneko helmugara eroan, bertan itxi, eta galapan joaten zan bestean bila eurekaz bidea egiteko barriro.

Ziklogenesiak be harrapatu ebazan gure ibiltariak Fromistan, baina umorea galdu barik, batzuek bideari jarraitu eta beste batzuek turismoa egin eben.

Ai Arratie, gure Arratie!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

Zugaitik BEGITUTEN dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

ARANTZAZU

San Fausto jaiak



Arantzazun jaietan.

Erredakzioa

Arantzazun sanpedroak uda hasieran eta sanfaustoak udagoienean ospatuten dabez. Udagoieneko jaiak uda hasierakoak baino apalagoak badira be, herrikoak asko disfrutetan dabe herri afarian egoten dan giroagaz. Baita, erromeria, kontzertu, sukaldaritza txapelketa eta mendi marxeagaz. Hiru eguneko egitarau sano konpletoa prestatu dabe Arantzazun, edade guztietako jentek ondo pasetako pentsautakoa.

Urri bigarrenak 9, barikua

19:00etan, txupinazoa.
20:00etan, barbakoa herrikoa.
21:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

Urri bigarrenak 10, zapatua

11:00etatik **13:00**etara, umeen jolasak Zastaparrakaz. Buruhandiak.
17:00etan, skate erakustaldia eta ikastaroa.
18:30ean, Frontenis Txapelketako finala.
20:00etan, herri afaria etxetik ekarritakoagaz eta Irasagar eta Sagar Tarta Txapelketea.

Urri bigarrenak 11, domekea

09:00etan, Mugari Bira mendi marxea.
10:30ean, mezea.
14:45ean, baba jana. Ondoren Mus eta Briska Txapelketak.
19:00etan, Uluka taldearen kontzertua.

Mugari Bira

Jai egitarauaren barruan, Arginatx Mendi Taldeak Arantzazuko Mugari Bira mendi marxea antolatu dau. Arantzazu inguruko mendiak ezetutera emoteko helburua dauka marxa honek eta edonork egiteko modukoa da. Izan be ibilbideak 9 km. ditu eta "umeak edo kantsetan badira, erdia be egin leikie" azaldu deutso BEGITURI Luis Uriarte Arginatx taldekoak.

Partaideak urteroko ibilbide bardina egingo dabe. Arantzazuko plazatik urtengo dira goizeko 09:30ean eta Trokara abiatuko dira. Handik Urikenetara, Argiñano eta Bildosolara. Bildosolan egongo da horniketa puntua. Elezkano, Arandui eta Arantzazugoititik pasau eta plazan amaituko da ibilbidea. Bildosolatik urten eta atzenengo 4,5 km.ak egiteko aukerea be badago.

ARRATIA

San Migel Altzutan, San Fresku Indusin

Erredakzioa

San Migel eguna urri lehenengoaren 29an izan arren, Zeanuriko Altzusta auzoan ondorengo zapatu-domekan ospatuten da; hau da, urri bigarrenaren lehenengo astegoienean. Holan, zapatuan, hilak 3, kofradien arteko Bola Txapelketea jokatu da arrastiko seiretan Altzustako bolalekuan eta parrilladea egingo dabe ondoren auzunekoak eta bertaraturakoak.

Indusin (Dima) be jaiak ospatuten dabez oraingo hileko lehenengo zapatu-domekan, San Freskuak. Izan be, Asisko San Frantzisko eguna urri bigarrenaren 4an da.

Indusiko San Fresku jaiak (Dima)

Urri bigarrenak 2, barikua
16:30ean, Briska Txapelketea.
19:30ean, txixi-burruntzia.
21:00etan, EinGO taldeak "kantan eta jantzan".
22:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 3, zapatua

12:00etan umeentzako ekintzak.
13:00etan, bertsolariak: Agin Laburu eta Beñat Ugartetxea.
14:00etan, Baba lapiko Lehiaketea.
17:00etan, herri kirol desafioa.
19:00etan, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketea.
22:00etan, erromeria Jainaga eta Narbaizagaz.
22:30ean, auzukoen antzerkia.
23:00etan, Mozorro Lehiaketea.
23:30ean, txokolatea.

Urri bigarrenak 4, domekea

12:00etan, mezea.
12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.
13:00etan, barauskarria.
14:00etan, zozketea.

ARRATIA

Emakumeen Mundu Martxa Arratian izango da



Zeanuriko arto haziak karabanakoai emongo deutsee Igorren.

Erredakzioa

Martiaren 8an Kurdistanetik urten zanetik, milaka kilometro egin ditu Emakumeen Mundu Martxeak. Urri lehenengoaren 28tik Euskal Herrian daukagu urri bigarrenaren 4ra arte. Arratian hilaen 3an egongo da eta Arratiako andra talde eta talde feministak alkarlanean dabiz beharrea karabana feministeari ondo etorria emoteko.

Arratiara Lemoatik sartuko da Emakumeen Mundu Martxea. 13:30ean helduko da Tailerretara. Han, gehituko dira arratiarrak karabanara kotxez zein bizikletaz Igorrera joateko, bertan egingo deusie eta harrera ekitaldia Kultur Etxe aurrean. Irati Bernaola eta Izaskun Urbaneta bertsolariak bertsoak bota eta Dima eta Zeanuriko andrak jantza agurra egingo deutsee Mundu Martxakoai. Jantza afrikarrak egongo dira gero. Bertso eta jantzen ondoren, Arratiako herrietako ordezkariak haziak edo lurra entregauko dabe, eta herri bakoitzean egindako ekintza sinbolikoen barri emongo dabe arratiarrak liburuan sinatu

aurretik.

Bazkaria hemeko produktuakaz egindakoa izango da 14:30ean Igorreko Kultur Etxearen aurrean. Bazkalostean Etxalde taldeko andrak, andra baseritarren inguruan egingo dabe berba eta ostein Vinagre de Moderna taldeak kontzertu txiki bat eskeiniko dau.

Arrastiko bostetan karabaneak Basaurirantza egingo dau.

Zeberion zinemaldi feminista

Urri lehenengoaren 27an, ikasurteagaz batera, ekin eutsien barriro Zeberion hilean behin pelikula bat proiektatzeari. Lehenengo pelikulea *The Rose*, Janis Joplinen bizitza kontetan dauan filma izan zan. "Oraingoan, eta Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herriatik eta Arratiatik pasetan dala aprobetxauz, gure omendaldi txikia eta babesa adierazo gura izan deusagu. Horregaitik udagoieneko pelikula guztietan andrak dira protagonista" azaldu deutso BEGITURI Eider Aierdi antolakuntzakoak. Feminismoaren gaineko hausnarketeta be egin gura dabe Zeberikoak.

ARANTZAZU



Arantzazuko Udalak eta jai batzordeak

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinikea

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64



begitu

amalia etxeko sabelak

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B · 48143 Areatza

Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82

E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

agoa Ortodontzia

Inplanteak

Estetika

hugin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bizkaia

T. 94 631 50 39

Kalejatu Zerbete 101 R.P.S. 21/06

ZEBERIO

Vespa velustinaren lizortegiak topau ezkeru Base Gorrira deitzeako eskatu dau Udalak**Erredakzioa**

Asiako liztor kaltegarria ugaltzen doala gure inguruan eta Zeberio-ko Udalak lizortegiak topau eta kendu gura ditu. Lizortegi bat topau ezkeru, Base Gorrira deitu behar dala jakinarazo dau.

Liztorrak, *Vespa velustina*, erleak hiltzen ditu, kalte handiak sortuz eta bere ziztadea arrisku-tsua izan daiteke. Horregaitik eta kontuan izanda kopuruak gora egin dauala nabarmen, lizortegiak topetako ahaleginean dago Udala. Lizortegiak biribilak dira

eta gehienetan arboletan egoten dira, baina baita etxeetan edo murruetan egon leitezke.

Vespa velustina 2004an heldu zan Frantziara Asiatik eta 2010ean topau ebezan lehenengo lizortegiak Gipuzkoan eta Nafarroan. Bizkaira 2012an heldu zan eta Zeberion igaz kendu ebezan lizortegi batzuk.

Espezie inbaditzaile honen arrakastea, klima egokia eta etsai natural eraginkorrik ez daukalako da.

Base Gorriaren telefonoa: 94 446 52 97.



LEMOA

Etxe kolaboratiboan gaineko hausnarketea III. Hirigintza Jardunaldietan**Erredakzioa**

"Etxe hutsetatik etxe kolaboratiboetara" lemapean antolatu ditu Lemoako Udalak autengo urigintza jardunaldiak. Lehenengo saioa urri lehenengoaren 24an izan zan eta beste hiru saio izango dira, eguenean, urri bigarrenaren 15era arte.

Lehenengo saioan Cover taldeko Ricardo Aristizabalek etxebizitza kolaboratiboak zer diran azaldu eban; hurrengoan esperientzia desbardinaren barri emongo dabe; hirugarrenean genero ikuspegia etxebizitza kolaboratiboetan landuko da eta amaitzeko, Lemoako etxe hutsak etxe kolaboratibo bihurtzeko lehenengo pausuk zehaztuko dira.

Jardunaldion helburua beraz, etxe kolaboratiboan gaineko hausnarketea egitea da, eta egoki jo ezkeru, eredu hau ezarri ahal izateko udal araudia prestatzea. Izan be, 2016an hasiko dira Lemoako Plan Orokorra berrikusten.

Beste helburu bat "beste eredu batzuk ezagutzeko aukerea emo-

tea da. Gainera Lemoan badagoz etxe hutsak eta ondo dago eredu desbardinak ezetutea horreekaz zer egin ahal dan jakiteko" azaldu deutso BEGIturi Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Etxe kolaboratiboak

Etxe tradizioletan, gitxi erabilten diran espazio asko dagoz: jantokia, bisitentzako gelaren bat... eta hori garestia da. Euskadin etxebizitzaren metro koadroa 3.000 euro ingurutan dago. Baliabideak errazionalizetako, etxe bizitza kolaboratiboetan gitxi erabilten diran espazio horreek konpartidu egiten dira. Etxe honeetako espazio pribatuak etxe tradizioletan baino txikiagoak dira, baina espazio komun zabalak ditue.

Etxe kolaboratiboak egiteko, etxekideak kooperatiba bat egiten dabe eta eurek hartzean dabez ebatzi guztiak: etxebizitzak apalak ala lujuzkoak izango diran, zenbat metro koadro izango dituen, ze material erabiliko dan eraikun-

tzan... Eta kooperatibako batek bere etxea saldu gura dauanean, kooperatibeak erosten deutso, eta kooperatibeak berak ebazten dau nori saldu.

Aristizabalen ustez, etxebizitzak kudeatuteko eredu hau parte hartzaile eta demokratikoa da, baliabideak errazionalizatu egiten ditu, onura sozialak dakar eta ingurumenari jagokonean jasangarria da. Holan, etxe kolaboratiboak etxe jaube izateko beste eredu bat proponiduten dabe, baina hau, barritzailea izan arren, biziteko eredu barri baten zati bat baino ez da. Cover-en "urigintza kolaboratibo egiten saiatzen gara, urigintza parte-hartzailetik harago". Eta urigintza kolaboratibo, ekonomia kolaboratiboaren barruan kokatu eban Aristizabalek.



Aristizabal eta Elejabarrieta.

IGORRE

Baserriko produktuak eta artisautza Garbeko Azokan**Erredakzioa**

Urtero lez, urri bigarrenaren bigarren domekan, hau da, hilaren

11n, Garbeko Azokan ortuariak, frutak, lorak, gaztaiak, pastelak, eztia eta artisautzako produktuak egongo dira salgai. Produktu ge-

hienak Bizkaiko baserrietakoak dira eta horreetatik hainbat Arratiakoak.

Azokeak zabalera ofizialik egin ez arren, goizeko hamarretarako prest egongo dira postu guztiak sasoi honetako baserriko produkturik onenak erosi eta dastatzeko aukerea emonaz. Igaz 27 parte hartzaile egon ziran eta beste

horrenbeste espero dabela dino Xabier Altube antolakuntzakoak. Azoka inguruan trikitixek ipiniko dau jaigiroa.

Ramon Urkiza Garbeko Azokearen arimea

Garbeko Azokea Bizkaiko antinakoenetakoa da eta antolakuntzan beti egon da Ramon Urkiza,

BBK eta Udalaren babesagaz. Azken urteotan Xabier Altube egon da Ramon Urkizari lagunduten, "baina Ramon da benetan Azokearen arimea" dino Altubek.

BBK-k azokarako postuak ipinten ditu Garben eta Udalak azpiegitura eta antolakuntzeari laguntzea.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxes. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



Banatzaile ofiziala















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

ARRATIA

Arratiako Gazte Programea martxan urri bigarrenean



Erredakzioa

Arratia mailako Gazte Programea Gurutze Gorriak eroango dau aurtentzen. Horretarako, Gazte Programea daukien Arratiako herrietako teknikariak batzarrak egiten dabizala esan dau Xabier Pastor Gurutze Gorriko Gazte Teknikariak. Izan be, ekintzak koordinatu egin behar ditue erabiltzaile talde bakar bateri zuzendutena dira eta: 12 eta 18 urte arteko gazteak, hain zuzen be. Programa honetan parte hartuko dabenek gazteak, gehienez 30 izango dira.

Arratiako Gazte Programearen helburua, aisialdi osasuntsua eta parte hartzailea sustatzea da. Horretarako, Gurutze Gorriko gazteentzako topaleku baten bila dabiz, seguru asko, Igorreko Kultur Etxean egongo dana. Baina alkartzeko puntua Igorren izan arren, ekintzak Arratian zehar egiteko asmoa daukie, beti

be, gazteak holan gura izan ezker.

Lehenengo egunean gazteen proposamenak batu eta ekintzak ebatziko dabez. "Erabiliko dogun metodologia parte-hartzailea izango da. Gurutze Gorriko bolondres bat eta neu egongo gara bertan eureka, bitartekari lana egiteko. Euren interesak eta proposamenak batu eta horregaz programazino bat egingo dogu" azaldu dau Pastorek.

Ekintzak

Ekintzak hiru bloketan bananduten dira. Astero ekintzak egingo ditue; hilero topaketa bat, eta Aste Santuan eta udan urtekerak egingo ditue. Asterokoa gazteak ebatziko dabenek arren, Gurutze Gorriak badauka programazino bat. Holan, Beldur Barik dagoala aprobetxatuz, genero kontua landuko dabe. Lehiaketara lanen bat bialtzeko proposatuko deutse teknikariak gazteak.

Hileroko ekintzak ebatzeko momentuan, zapatu-domeka horretan Arratian zer dagoan hartuko da kontuan nora joan ebatzeko.

Urri bigarrenean hasiko da martxan programea eta bagilera arte astean behin batuko dira gazteak. Garagarrilean udako urtekerea izango dabe.

Erabiltzaileak

Gazte Programak 12 eta 18 urte arteko gazteak zuzenduta egon arren, Arratian batez be 12, 13 eta 14 urtekoak erabiltzen ditue. Edade horretatik gorakoak, euren lokala izaten dabe. "Leku publikoetara joan baino, euren lokal pribadua gurago izaten dabe" dino Xabier Pastor Gurutze Gorriko Gazte Teknikariak.

ARRATIA

Igorreko sakristau etxea eskeini dau Eleizeak errefujiaduak hartzeako

Erredakzioa

Parrokiak sakristau etxea eskeini deutso Igorreko Udalarari eta Mankomunidadeari Siriako errefujiaduentzat. Igorreko Pastoral Batzordearen ebatzia izan zan etxea eskeintzea.

Igorreko parrokia prest agertu da Administrazino Publikoagaz lan egiteko errefujiaduen harreran. Izan be, Administrazino Publikoari jagoko errefujiaduen estatutu juridikoa ezartea eta persona eta familiai bizilekua emotea. Hori dala eta Pastoral Batzordeak Udalarari eta Manko-

munidadeari sakristiako bizilekua eskeintzea pentsatu dau, bi edo hiru urtetan harrera etxe bihurtzeko.

"Ezin dogu ahaztu krisi hau injustiziak eta gerreak eragina dala. Larrialdian eskeintzen dogun laguntza humanitarioaz gainera, egoera hau sortarazoten dabenek errazoia arpegia emon behar deutsegu. Horregaitik drama izugarri hau sortu dan lekuetan zuzentasuna eta bakea berbiztearen alde jokatu behar dogula uste dogu, gerra honen sortzaileak eta hornitzaileak salatuz" dino Pastoral Batzordekoak.

AREATZA

Areatzan, bizimodua ganadutik ateraten lagundu gura dau Upolupetzako ganaderuen alkarateak

Joseba Bizkarguenagak eta Antxon Iturriagak ganaduzaintzatik atera gura dabe bizimodua. Areatzan ez da ganadu asko egon atzen urteotan eta herriak ez dauka ganaduontzat bedartza nahikorik. Alkartuta banan-banan baino indar handiagoa egin ahal izango dabela eretxita, Upolupetza Elkartea sortu eben urte hasieran Udalgaz negoziatuko eta erakundeetan dirulaguntzak eskatzeko.

Hamaika ganadu jaube dira alkaratean. Euretatik, orain arte batek be ez dau hortik bizimodua atera, baina Iturriaga eta Bizkarguenaga euren esplotazinoak handitzen dagoz helburu horregaz. Iturriagak ardiak, ahuntzak eta behorrak ditu, Bizkarguenagak, barriz, behiak.

Erredakzioa

Noz sortu zan alkaratea, zergaitik eta ze helburu dauka?

J.B.: Sortu aurtengo urtailan. Areatzan dagoz hamar bat ganaderu eta pentsau genduan indar gehiago egiteko, dirulaguntzak eta eskatzeko, egitea alkarate bat.

Zenbat bizi zarie ganadutik?

J.B.: Momentu honetan alkarateko inor ez da ganadutik bakarrik bizi. Antxon dago horretan hasteko, eta gero ni.

A.I.: Besteak gehiago daukie afizino moduan.

Zuek hamaika zarie eta danak oso gazteak edota hasibarririk. Urte askoan Areatzan ez da egon ganaderurik ala?

J.B.: Bai, baina beti bardina izan da, ez da egon inor ganadutik bizi izan dana. Orain dala 10 bat urte edo, baegoan bat, baina osterantzean ez da inor egon Areatzan.

A.I.: Posibilidade handiegirik ez dago. Beste herrietan posibilidade handiagoak dagoz. Hemen dana pinua da, bedartzarik be ez dago.

Beraz, egoera diferentea daukie Arratiako ganaderuak eta Areatzakoak?

A.I.: Bai. Diferentzia da Areatzako Udalak orain arte ez dauala ezer egin ganadudunen alde eta beste udal batzuetan asko egin dabe. Zeanurin edo Diman, berbarako. Horregaitik egin genduan alkaratea, larrak eskatzeko. Areatzan, ez

da ganaduarentzako bazkalekurik egin, dana da pinua eta zipresa eta holan. Dirulaguntzak eskatzeko be egin genduan alkaratea. Erakundeetan norbanako moduan eskatu ezker ez da ezer lortzean baina alkarate moduan eskatu ezker aukera handiagoak dagoz.

Zein da zuen eguneroko lana?

A.I.: Orain behar gitxi daukagu, ganaduak basoan dagoz eta. Neguan bai. Neguan erditzeak eta dagoz eta behar gehiago daukagu. Orain apur bat kontrolatu eta listo.

Zelan komertzializetan dozuez zuen produktuak? Esnea, bion

kasuan. Eta zure kasuan, Antxon, ardi-ulea be bai?

A.I.: Ez, ez. Lanea ez dabe ezer pagetan eta bota egiten dot. Esnea Aldanondori saltzean deusatz, zentralari. Eta artxoak partikularrai, baina ezin dirala holan saldu eta aurtentzateari salduko deusatz.

J.B.: Nik, esnearen erdia denda eta tabernetan saltzean dot, eta bestea zentralera. Dozena erdi bat behi daukadaz momentuz.

A.I.: Nik orain ipini behar dodaz buru gehiago bertatik biziteko. 50 bat ardi eta 50 bat ahuntz daukadaz. Talde handia ipinteko, ganaderu gazteentzako BFAk dirulaguntzak emoten dauz.

Alkarateko beste ganaderuak ze ganadu daukie?

A.I.: Danetik. Batzuek behiak, beste batzuek ardiak, ahuntzak, behorrak...

J.B.: baina 60 burutik pasetan danik ez dago.

Eta bizimodua bertatik aterateko 200 ardi baino gehiago behar izaten dira, ezta?

J.B.: 300 gitxienez.

Zelan doaz udalagazko negoziatuzinoak?

J.B.: Ea oraingo hilean batzean garan! Gorbeia bidean dagoan terreno baten bedartza egitea eskatuten gabiz.

A.I.: Baietz esan deuskue, egiten dagozala. Eta korralak koponduteko be eskatu dogu, ze apurtu apurtuta dagoz eta bertan ezin da animaliarik sartu.



Antxon Iturriaga eta Joseba Bizkarguenaga.

ARGAZKI LEHIAKETEA

"Strasbourg" argazkiak irabazi dau Oporretako Argazki Lehiaketea

Miren Begoña Idigoras Mugerzak Estrasburgon ateratako argazkiak irabazi dau aurtengo BEGITUREN Oporretako Argazki Lehiaketako lehenengo saria. Irabazleak astegoieneko egonaldia landetxe baten izango dau sarizat. Bigarrena, Aitor Arnaizen "Gaztetatik ikasteko grina" izenekoak izan da eta honek be saria izango dau.

Oraingoan 28 argazkilarik hartu dabe parte eta 57 argazki bialdu dabez guztira. Hareetako batzuk dakarkuz hona, finalistak. Parte hartu daben guztiak gure webgunean dagoz ikusgai.



Lehiaketako argazki irabazlea. Miren Begoña Idigoras Mugarzaren argazkia.



Janire Aierdiren "Gure argazkilaria txikia".



Aitor Arnaizen "Gaztetatik ikasteko grina".



Aitor Arnaizen "Ilunabarraren zain".



Ibon Azkonaren "Kuba".



Mikel Diezen "Cheriffe".



"Arcachon" Xabier Arauzo.



"Haguenau" Miren Begoña Idigoras.



"Asturias" Edurne Landajo.



"Manhattan" Maria Rodriguez.



"Krabi irlako ilunabar liluragarria" Janire Aierdi.



"Morgarraz" Jon Gutierrez.



"Udeko maitasunek" Miren Urutxurtu.



"Salto" Ibon Azkona.



"Bretainia Saint Malo" Luis Bilbao.



"Zeberiko mutilak sagardoa egiten" Nahikari Añibarro.

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatekxear@hotmail.com

Dia %

PEDRO
AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

GARANTXE
Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ

Baimonak: A1, A, B1, B

Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 631 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evokah.net

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN ★ SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3, 48550 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 090 481 839 eta 090 290 717

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

RAID

Euskal Herriko Raid Ligako Txapelduna Arratian ebatziko da

Erredakzioa

Arratiako Raida Euskal Herriko Raid Ligako azken proba izango da aurten; bosgarrena, eta bertan ebatziko da ligako txapelduna. Diman urri bigarrenaren 17an jokatuko da. Probak lau zati izango ditu: orientazioa herrian, mendi bizikletea, trekking-a eta barriro be mendi bizikletea.

Irabazi gura dabenentzat zatirik "garrantzitsuena" Dimako mendietan zehar egingo dan trekking ikusgarria izango da. Bertan, tirolina edo rappela egiteko aukerea egoteko dabiz beharrea antolatzaileak.

Lehenengo zatiak, herritik orientazioa, zenbait proba berezi be izango ditu: herri kirolak, eskaladea eta brujuleagaz norabidea hartzeako proba, beste proba batzuen artean.

Partaideak mendian ibiliko dira goizeko hamarretatik arrastiko bostak aldera arte. Ondoren, bazkaria egongo da frontoian partaide eta laguntzaileentzat, eta oparien zozketea. Zozketatuko diran oparien artean, otzarak, Barazarreko kanpinetako etxe zingarotetan gau bat, afaria eta mendiko materiala egongo dira.

Diman

Aurtengoa, Lamino Kirol Elkarrekin eta Arratia Raid Taldeak antolatutuen daben IV. Raida izango da. Aurreko urteetan, Artea, Areatza eta Otxandion egin izan da Raida. Diman egitea pentsau dabe antolatzaileak, bailarako herri gehienetatik pasetako asmoa daukielako. "Gainera Dimako Udalak erreztasun guztiak emon deuskuz eta raid polita egitea espero dogu" dioe.



MENDIA

Dimako Sisetan Mendi Martxea hilaren 10ean

Erredakzioa

IX. Sisetan Mendi Martxeak aldaketa batzuk dakar aurten. Aurreko sei urteetan ez bezala, ez da egun berean izango bizikleta martxea, aurreko hilaren 26an izan zan eta. Ibilbide luzea be laburragoa izango da aurten, 28 km. izango ditu, igaz 33 km. izan ebazan bitartean.

Hitzordua goizeko 08:00retan da Dimako plazan. Ibilbide luzea aukeratutuen dabenak 28 km. egingo ditue eta laburra aukeratutuen dabenak 16 km. inguru. Ondoren, betiko legez, kopaua partaideen-

tzat: urdaiazpikoa, txistorra... Izena egunean bertan emon daiteke 07:30etik aurrera.

Gazteak eta jubiladuak bidea marketan

Urtero Udalak antolatutuen dauan martxa honetako bideak marketako aurten talde barri bat sortu da eta jubiladuak, gazteak eta edade guztietako jenteak egin dau. "Orain arte gazte kuadrila batek markau dau, baina aurten ez egoanez, talde barri bat sortu da" azaldu deutso BEGITURI Ibon Iza zinegotziak.

BOLA JOKOA

Altzustan jokatuko da Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea

Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 3an, zapatuan, Altzustako bolatokian jokatuko da Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea. Udallerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzen dan txapelketa horretan parte hartzeako aukerea: Altzuak, Altzustak, Asterriak, Iburguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Taldeak 4 bolarik osotuko dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botaten dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketea egongo balitz, gerrea jokatuko litzateke.

Aurtengo udan, bakarkako lau txapelketa jokatu dira Zeanuriko Altzuan, Ipiñan, San Juston eta San Lontzon, eta leku bakotxean sailkatu ziran lehenengo hiru bolariak jokatu eben Zeanuriko Txapelketea San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea, igazko berbera izan zan, Maximo Beitia eta bigarren eta hirugarren postuetan Eusebio Larrazabal eta Esteban Ozerinjauregi sailkatu ziran. Hiru bolari honeek kofradien txapelketan be parte hartuko dabe: Beitiak Otzerinmendigaz, Larrazabalek Ipiñaburu-Undurragaz eta Ozerinjauregi Altzuagaz.

Bola jokia desagertzeko arriskuan

Bola jokia Arratiako eta euskal kulturako beste hainbat gauza lez, desagertzeko arriskuan dagoala

ikusiz, bultzakadaxoa emon gura deusie antolatzaileak txapelketeari. Gaur egun bola jokia udan eta auzune gitxi batzuetako jaietan bakarrik jokatzen da, gazteen parte hartze txikiagaz. Beraz, desagertzeko arrisku larrian dagoan kirol herriko honen biziraupena, eta gazteak erakartea, bilatzen dabe antolatzaileak. Juantxo Ozerinjau-regik, antolatzaileen ordezkariak dinoanez, "aurten umeentzat txapelketea antolatu gura dogu, eta umeen taldeak osotuteko ahalegin bat egin behar dogu, ia animetan diran eta gure-gurea dan kirol bateri, boleari, ez deusagun desagertzen ixten".

Babeslea eta laguntzailea

Kofradien arteko txapelketa hau antolatzea ezinezkoa izango litzateke erakunde eta enpresa pribaduen laguntza barik, eta

Zeanuriko Udalaren babesla eta Altzustan dagoan Ellauri Hoteleko Kiloterdi jatetxearen laguntza izango dau.

Sariak honako honeek izango dira: talde irabazleak 120 euro eta kilo eta erdiko txuleta bi bere osagarriak bazkalteko edo afal-teko aukerea izango dau Kiloterdi Txokoan, Ellauri Hotelaren jatetxean; 2. saria: 100 eurokoa izango da eta 3.a 80 eurokoa.

Txapelketea amaitu ostean, parrilladea egongo da Altzustara hurreratzan diran guztientzat, auzuneko txokoan, Altzustako jai batzordearen eskutik.

Beraz eskuzuloak, txorra, sinka, hirukoa, txakile, zubile, txirloa, arrapea... eta beste berba batzuk entzuteko aukerea izango da Altzustako bolatokian urri bigarrenaren 3an, arrastiko 18:00etatik aurrera.



Igazko txapelketea.

ESKU PELOTEA

Beñat Mendia Bizkaiko Txapeldun

Irati Urien

Esku pelotan Beñat Mendia da aurtengo Bizkaiko Txapelduna 22 urte azpikoen kategorian. Urri lehenengoan hasi zan Bizkaiko Kluben arteko Txapelketea uda hasieran prebiak egin ostean, eta finalak urri lehenengoaren 25ean jokatu ziran Larrabetzun. Zeanurikoak 22-13 irabazi eutsan Endika Uriondo Munitibarkoari.

Orain txapelketa berbera baina bikoteka jokatuten hasi dira pelotariak. Kasu honetan nagusietan, Elite mailan jokatuko dau Beñat

Mendiak. Endika Garcia lemoaztarra lagun, Lemoako Kluba ordezkatu dabe arratiarrak. Lehenengo partida irabazi dau bikoteak daborduko.



Beñat Mendia.

MENDI LASTERKETEAK

Inozkorik eta onenean segunduakaitik suzien

Irati Urien

Beste urte batez korrikalari handiak batu ditu Gorbeia Suzien Ternuak. Ibilbide barria izan dau aurtengo edizinoak, lasterkarien arteko segunduak eta arnases-tuak ondo estutu dauazana. Ikuskizuna ziurtatuta egoan eta holantxi izan zan. Lehenengo postuak larri ibili ziran. Aritz Egea eta Oihana Kortazar buru ziran lasterketaren hasierako kilometroetan baina nesketan aurrea hartu eban Laura Orgué eta gizonetakoetan Tofol Castanyerrek. Hortik aurrera andrazkoetan lehenengo postuan mantentzen ziren Orgué, nahiz eta Paula Cabrerizo atzetik euki. Tofol Castanyerrek osterera ezin izan eban lehenengo postua gozatu, atzenengo zatian Manuel Merillasek gogor burukatu eban eta, garaipena lortu arte. Hamabi segunduko aldea baino ez zan egon bi gizonetakoetan. 31km 2.400 metroko desnibelagaz egiteko 2:57:01 izan zan Manuel Merillasen denpora, 3:29:26 Laura Orgué kataluniarrena.

Aitatutekoa da arratiarren presentzia edizino honetan. Gizonetako zein andrazko, lasterketa nagusian berrogeta hamaikak



Paula Cabrerizo, Laura Orgué eta Oihana Kortazar.



Tofol Castanyer, Manuel Merillas eta Jokin Lizeaga.

HERRI KIROLAK

Arratiarrak marka onak Zazpi Herrialdeetako Txapelketan

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 19an Elizondon (Nafarroa) jokatu zan Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketea. Nafarroa Garaiak irabazi eban arren, Arratiako herri kirolariak be irabazi eban probak puntuak emonez euren herrialdeai. Holan, Gipuzkoa ordezkatzeko joian Tubi dimoztarrak Lasto altxatzeko proba irabazi eban eta Aitzol Atutxak aizkorakoa, Bizkaitik joanda. Dimako Jabi Lamadrid eta Jon Loiolak trontzan hirugarren egin eban.

Zazpi Herrialdeetako izan arren, Nafarroa Behera eta Zuberoa ez ziran lehiatu eta Arabak eta Lapurdik ez eban parte hartu proba batzuetan. Lokotx biltzean, kontrabandistan, ingudean, sokatiran, orga jokoan, harri jasotzen, trontzan, lasto altxatzen eta aizkoran neurtu ziran herri kirolariak.

FUTBOLA

Arratia lider

Ainhoa Duñabeitia

Aurreko denporaldian mailaz igoan eta gero Arratia taldeko gizonak Oho-rezko Mailan hasi dabe denporaldia. Estreinaldi sano ona izan da, lehen postuan dagoz eta. Partidu bi jokatu dabez eta bietan lortu dabe garaipena. Lehenengoa etxean jokatu eban, lurretako A izan eban aurrez aurre eta errez lortu ebezan 3 puntuak; gol bi egin zituan Arratiak. Azken emoitzea 2-0. Urri lehenengoko atzen astegoienean osterera, Gallartan jokatu eban eta garaipena etxera ekarri eban beste gol bi eginda. Hurrengo norgehiagokea Paduraren kontra jokatu dabe hilaren 3an, zapatua, 17:15ean Igorreko Urbieta zelaian.

Andrak lehen partidua galdu

Andrazkoen taldeak be denporaldia hasi dau baina momentuz partidu bat baino ez dau jokatu. Beasainen kontra jokatu dabe lehen partidua galdu egin eban Arratiak. Azken emoitzea, Beasain 3 Arratia 2. Hurrengo neurketea hilaren 4an izango dabe Peña Ath. Santurtziren kontra Urbietan.

hartu eban parte; eta lasterketa herrikoian, hogeta hamalauk. Urtero lez Ibon Gurtubai igorretarra izan zan bizkorrena (3:34:14) mutiletan eta Dimako Eba Urizar nesketan (5:10:59), oraintxe urte bi moduan.

Korrikalariak disfrutetan, denporea lagun, herri oso bat beharrean, eta animetan eban ikusleak nongura, arrakastatsua izan da Gorbeia Suzien Ternua.

Sailkapenak Gizonezkoak

1. Manuel Merillas 2:57:01
2. Tofol Castanyer 2:57:13
3. Jokin Lizeaga 2:57:34
4. Ismail Razga 3:01:03
5. Hassan Ait Chau 3:01:48
6. Alfredo Gil 3:04:08
7. Imanol Goñi 3:04:48
8. Beñat Marmisolle 3:05:07
9. Daniele Cappelletti 3:07:05
10. Aritz Egea 3:07:29

Andrazkoak

1. Laura Orgué 3:29:26
2. Paula Cabrerizo 3:29:38
3. Oihana Kortazar 3:33:16
4. Maria Zorroza 3:53:17
5. Sheila Aviles 3:54:30
6. Nuria Dominguez 4:00:02
7. Nerea Amilibia 4:00:45
8. Montse Vazquez 4:02:22
9. Sandra Sevillano 4:04:18
10. Eva Maria Cruz 4:04:20

DUATLOIA

Umeentzako duatloia Igorren

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 4an, Oskar Garro Lagun Taldeak antolatuta, Igorreko III. Duatloi Herrikoia izango da Igorreko eskoletan. Hiru kategoria egongo dira aurtengo: zazpi urterarte, 8 eta 12 urte bitartekoa eta 13 urtetik gorakoa. Izen emotea egunean bertan izango da 10:00etatik aurrera.

Zazpi urte arteko umeen lasterketea izango da lehena. 11:00etan hasiko dira eta 400 m. galapan, 900 bizikletan eta gero beste 150 m. galapan egin behar izango dabe. Ordu erdi beranduago 8 eta 12 urte bitarteko txandea izango da; 900 m.

egin dabez galapan, beste horrenbeste bizikletan eta, amaitzeko, 450 m. galapan. Nagusienak, 1,5 km. egin beharko dabe lehenengotik galapan, 4 km. bizikleteagaz eta gero 1,7 km. galapan barriro.

Amaitutakoan partaideentzat kopautxua eta oparien zozketea egongo da.

Oskar Garro lagun Taldeak antolatutako duatloi hau ziklistamoduko egokitutako ziklista igorretarrari lagunduteko. Jasotzen dan dirua, alde batetik duatloia bera pagetako eta bestetik ziklistari entrenamentuak lagunduteko eta txapelketetan parte hartzeako erabilten da.

IGORREKO III. DUATLOI HERRIKOIA

URRIAREN 4an IGORREKO ESKOLETAN

OSKAR GARRO LAGUN TALDEAK ANTOLATUA



TALDEAK	KORRIKA	BIZIKLETA	KORRIKA	IRTEERA
0 - 7 URTE	400 m	900 m	150 m	11:00
8 - 12 URTE	900 m	900 m	450 m	11:30
13 URTETIK AUERRERA	1500 m	4000 m	1700 m	12:00
INSKRIPZIOA	10:00 - 10:45 (igorreko eskoletan)			
	3 € (0 - 12 urte) eta 5 € (13 urtetik aurrera)			
Amaieran lunch-a eta oparien zozketa egongo da. Ume guztientzat opariak egongo dira.				

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro Euskadiko Txapelketako podiumean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 19 eta 20an jokatu zan Andoain eta Zarautzen Bizikleta Egokitutako Euskadiko Txapelketea. Zapatuan izan zan erlojuaren kontrakoa Andoainen. Oskar Garrok bigarren egin eban. Hurrengo egunean Zarauzko lasterketea izan zan, 65 km. kaminotik. Han be podiuma egin eban igorretarrak, hirugarrena oraingoan. Guillermo Prieto gipuzkoarra izan zan txapelketa.

Zapatuko proba 6 km.takoa izan zan, zirkuitu lau eta arin baten. Partaideak zirkuituari bost buelta emon eutsien. Garrok bigarren egin eban eta pozik agertu da egindako beharraz "sano ondo urten jatan

lasterketea" azaldu deutso BEGITURI.

Domekan 65 km. egin eban Zarautz eta Getaria arteko bidean, zortzi buelta. Igorretarrak podiuma egin arren, lasterketea ez zala urten berak espero legez, postu hobeagaz egitea espero ebalu dino.



MUSIKEA

Vinagre de Moderna taldeak Igorren joko dau Emakumeen Mundu Martxeari harrerea egiteko**Erredakzioa**

Vinagre de Moderna talde igorretarrak kantu pare bat joko dau urri bigarrenaren 3an Igorren, Emakumeen Mundu Martxeari Arratian harrerea egiteko. Taldeak bere estilo propioa dauka eta "ozpin musikea" egiten dabela dinoe, punk musikatik hur. Euren errepertorioan "Emakume libre eta askea" izeneko kantu bat daukie.

Orain urtebete sortu zan Vinagre de Moderna taldea, 2014ko urrietan. Aurretik, Ana Etxaniz bateria joleak komentautu eukan Maitane Iruarrizagagaz musika talde bat sortzeako asmoa. Iruarrizagak beragaz kontetako erantzun eutsan. Beste taldekide batzuk Igitie alkartetik ezagutzen ebezan eta holan batu ziran sei partaideak eta orain urtebete ensaioak egiten hasi.

Ibilbidea

Urtebete honetan kantuak



sortu eta kontzertuak jo dabez. Bederatzi kantu sortu dabez, horreetatik hiru bersinoak dira. Iggy Pop, Los Punsetes eta La Polla Records taldeen kantu bana bersinoau dabez Igorrekoak. Momentu honetan, beste kantu bat sortzean dabiz eta maketea egin gura dabe.

Kontzertuak jagokienean,

lehenengo kontzertua pribadua izan zan "Solagurenen, lagun baten etxean. Solagurenen ensaietan genduan hasieran eta etxe haretako baten urte eguna izan zan eta jo genduan festa pribadu antzeko baten" azaldu deutso BEGITURI Maitane Iruarrizagak. Ondoren, beste kontzertu asko etorriko dira:

Dimako Nekazalpunk, Irola Irratiko jaiak Iralan, Arantzazuko jaietan, Santurtziko jaietan kale kontzertua... Gaztetxeetan be askotan jotzen dabela dinoe taldekoak.

Vinagre de Moderna

Izaskun Urbaneta (abotsa)
Ianire Esnaola (abotsa eta gitarrea)
Amaia Quesada (gitarrea)
Janire Azkuna (gitarrea)
Maitane Iruarrizaga (bajoa)
Ana Etxaniz (bateria)

Abestiak

Ozpinak
AHTrik ez (Iggy Pop-en bersinoa)
Tomaki (Los Punsetes)
Johnny (La Polla Records)
Egizu aurrera
Emakume libre eta askea
C'est la vie
Irola
Bacillus Turigensis

GAZTETXEA

Rafa Ruedaren kontzertua Kiñu Gaztetxean**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 2an, hasiko dau kursoa Igorreko Kiñu Gaztetxeak. Egun horretan, umeentzako sukaldaritza tailerra egongo da arrastian eta Rafa Ruedaren kontzertua iluntzean.

Gaztetxeak seiretan zabalduko dauz ateak, eta handik ordu erdira, sukaldaritza ikastaroa emogo deutse gura daben ume guztiai Gaztetxeak kideren batek. Sukaldatu beharreko jatekoa Gaztetxeak berak ipiniko dau.

Rafa Rueda

Lehendik be musika munduan ibilbidea baeukan be Pi LT taldeko abeslaria zalako, Rafa Rueda sano ezaguna egin zan, Mikel Urdangarin, Kirmen Uribe eta Bingen Mendizabalegagaz egindako ikuskinakaitik: *Bar Puerto* eta *Zaharregia, txikiegia agian*.

Abeslariak Igorreko Kiñun eskeiniko dau kontzertua zortzi t'erdietan.

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

Kili-Kili
Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

begitu
arratia ubide zeberio

12 urte eta gehiago

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonia

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

ERAKUSKETEAK

Arratiako lau artista plastikoren erakusketea Igorren



Marisol Calzada, Maite Artabe, Tere Uribe-Etxebarria eta Maritere Bilbao.

Urri bigarrenaren 2tik 30era, Maite Artabe Areatzakoak, Maritere Bilbao Arteakoak, Marisol Calzada Igorrekoak eta Tere Uribe-Etxebarria Dimakoak erakutsiko dabez euren azkenengo artelanak Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretan. Lan-Meta izenpeko erakusketan, gai, teknika eta estilo ugari lanak batzean dira.

Erredakzioa

Erakusketea egiteko idea Igorreko Kultur Etxetik sortu zan. Ines Medina artista plastikoaren ikastaroaren ostean, partaideak erakusketa kolektiboa egiten dabe ikasturtean zehar egindakoa erakusteko. Kultur Etxeko teknikariak, Janire Lopezek, proposatu eban banan-banan edo taldeka be erakusketak egitea. Rosa Calzadak egin eban lehenengoa, bakarka eta Lan-Meta izeneko taldekako hau da bigarrena.

Beren-beregi erakusketarako egindako proiektua

Maite Artabe Urkirik erakusketarako beren-beregi egindako proiektu

berezia aurkezten dau. *Kristalezko abandonuak* titulupean, koadroak eta poesiak batzean ditu proiektu honek. Erabilten dauan teknikea akrilikoa eta grafitoa da, eta poesiak lientzoetan eta grabauta agertzen dira. Estilo aldetik, elementu errealistak be agertzen dira koadroetan. "Proiektu hau orain arte inongo erakusketan egon bakoa da" dino Maite Artabek. Lehenengo aldia da Areatzakoak poesiak grabauta erakusten dituala, baita teknika aldetik grafito eta estilo "errealista" erabilten dauala be.

Barruko eta kanpoko paisajeak
Barruko paisaje eta kanpoko paisa-

jeak bat egiteko burrutatik sortzean da Maritere Bilbao Amurizaren lana. "Kanpoko paisajeetan oinarritu naz eta nahiz eta paisajea kanpoko izan, argi dago barrukoagaz batera ateraten dala. Hor ibili naz burrukan" dino. Hasi baten, barruko paisajeak egiten hasi zan eta hor bat etozen kolorea eta artista bera. "Barruko paisajeak txikiak eta gorriak ziran. Kolore gorria indartsu ateraten zan". Kanpoko paisajeak pintetan barriz, "burrukea izan dot sentidu izan dodana eta koloreetan agertu izan danaren artean". Burruka horren emoitzea da Arteakoak erakusten dauana Igorren.

Naturen oparotasuna

Marisol Calzada Arrietak Naturea hartu dau gaitzat eta bertan dauan guztia jaso gura izan dau bere lientzoetan: lorak, arbolak... danerik. Igorretarraren gaiak beti dagoz lotuta Natureagaz, edertasun handiko gai ugari eskeintzen ditualako. Dibersidade eta oparotasun hori jasoten dauz Calzadak bere koadroetan.

Teknikeari jagokonean, akrilikoak, oleoak, marmol-hautsa... horretan be ugaria da Calzadaren lana.

Hur-hurretik abiatuta

Tere Uribe-Etxebarria Gotik, irudi txikien bilduma zabala dakar erakusketara. Baita akrilikoaz egindako

koadroren bat eta grisaila. Zuria ez dan euskarri bat erabilia zuriak eta baltzak landutea da grisaila.

Aurrean ikusten dauana pintetan dau Dimakoak, "koadroetan asko ikusiko dira eskuak, hankak edo irudi bat egiten nagoala hanken gainean... juxtu-juxtu aurrean daukadana. Batzuetan, joan naz apurtxo bat urrunago eta hasi naz gorputzak margozten eta baten baten iritsi naz paisaje bat margoztera. Ikusten dodana".

Beste lan batzuetan, artistak sentiduten dauana pintetan dau. Begiak itxi eta sentimentu horreek papelera bota ditu Uribe-Etxebarriak. Beti be errealidadetik urruntzen dan ikutu batez.



DUNBA

Bertsolaritzea Institutuan

Arratia Institutuko ikasleak

Bertsolaritzea, abestuz, errimauz eta neurtuz egiten dan berbaldi bat da eta oraingoz ezetuten doguzan moduko inprobisatzaile gehienak ez bezala, musika tresnen laguntza barik kantetan da.

Urte honetan be, Institutuko gazteok bertsolaritzea ikasteko aukerea daukagu, eta Iñaki Iturriotz izango da beti lez gure irakaslea. Berak Zeanuriko, Areatzako, Arteako, Igorreko, Lemoako eta Deustuko eskoletan emoten dauz klaseak eta baita Igorreko eta Lemoako institutuetan be. Berak dino, bere ikasleak, bertsolaritzea jolas moduan hartzean dabela

euskereagaz olgetako aukerea emoten daualako, hiztegia aberasten da, kantau egiten da, inprobisau egiten da, errimak eta oinak egiten ikasten dira, bertsoen doinuak eta kantak ikasten dira, baita bertsoen arauak be.

Aukera ederra daukagu institutuan gagozan gazteok gure bertsozaletasuna aurrera erateko, eta horretaz aparte bertsozaleak ez diranai bertsoak ikasteko gogoa biztuteko. Gainera bertsolaritzea aukera ona da euskera mailan, oso ondo ez dabizenak, gehiago sakontzeko, euskeraz gauzak pentsau eta idaztea dalako, eta euskerea beste ikuspuntu batetik ikusteko aukerak emoten



Arratia Institutuko ikasleak.

dauzalako.

Institutuan urteetan bertsoak ikasten ibili dan, eta ondino be horretan dabilen, Lur Ziarrusta ikasleak dino sano ondo eta gustura ibiltzen dala bertsoetan,

gainera bertsolari izatean gauzakazko beste ikuspuntu bat topetan laguntzen deusala, beti sinpleenera jo beharrean. Horretaz aparte burua be asko landuten dala dino eta gainera helduago



izaten be lagundu ahal deuskula.

Beragaz batera dagozanak be, tauladu gainean normalean ondo sentiduten dira eta ondo pasetan dabe baina badakielako horren atzetik lan gogorra euki dabela preperetan.

Bertsolaritzan gehiago sakondu gura dabeneztat edo bertsoak egiten hasi barriak diranentzat, institutuan arrastietan, bertsolaritzea klaseak emoten dira. Jente asko joaten da bertsoetan ikasi gura daualako edota euskeran gehiago sakondu gura daualako.

AGENDA

URRI BIGARRENAK 1
ARRATIA

1987ko kintadearen urri bigarrenaren 24ko bazkarirako izena emoteko epea zabalik hilaren 15era arte. 35 euro sartu behar dira kontu honetan: 2095 0154 50 8201100307, izen-abizenak idatzita. Bazkaria Ostargin (Igorre) izango da.

Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik zemendiaren 11ra arte.

ARANTZAZU

Jubiladuen Nazinoarteko Eguna. 17:00etan, Karta Joko Txapelketea, opariak irabazleentzat eta kopaua hurreratzin diran guztiarentzat. Jubiladuen Txokoan.

DIMA

17:00etatik 19:00etara, Lanbideren puntu mobikorra.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, berbaldia "Nekazaritza ekologikoa (II)". Kultur Etxean.

LEMOA

Urri bigarrenaren 8ra arte, 2016ko aurrekontuetarako ekarpenak egin daitezke.

19:00etan, III. Hirigintza Jardunaldiak. "Etxebizitza kolaboratiboak. Esperientzia desbardinak". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Lemoako IV. Argazki Lehiaketara argazkiak bialtzeko epea hilaren 30era arte, kultura@lemoa.net helbidera.

URRI BIGARRENAK 2
DIMA

Indusiko San Fresku jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

19:30ean, "Etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa. Plazan.

IGORRE

Kiñu Gaztetxearen kurso hasikerako jaiak. 18:00etan, atek zabaldu; 18:30ean, sukaldaritza tailerra umeentzat. Gero dastaketea; 20:30ean, Rafa Ruedaren

kontzertua.

Hilaren 30era arte, Lan-Meta erakusketea Erakusketa Aretoan.

LEMOA

20:00etan, Lemoako Korak antolatuta kantu-potea Atxeta tabernatik. Ibilbidea: Atxeta, Txoane eta EA tabernak.

URRI BIGARRENAK 3
ARANTZAZU

18:00etan, Frontenis Txapelketarako sailkapena. Elizportaleko Gazte Asanbladak

antolatuta.

DIMA

17:00etatik 18:00etara, Siriako errefujiaduentzako erropa, oinetako, manta eta abarren bilketea Indusin.

LEMOA

13:30ean, Emakumeen Mundu Martxearen etorrerea. Tailerretan.

IGORRE

14:00etan, Emakumeen Mundu Martxeari harrerea Kultur Etxean; 14:30ean, bazkaria Kultur Etxe aurrean; 15:30ean, Etxaldeko



Zinea Igorreko Kultur Etxean

Udako etenaldia egin ostean, hasi da barriro zinea Arratian. Igorreko Kultur Etxean *Mr. Holmes* (Bill Condon, 2015) pelikulea izango da lehena; urri bigarrenaren 3an 22:00etan eta 4an, 19:30ean egongo da ikusteko aukerea. Publiko guztiari zuzendutako saioko lehenengo filma euskeraz izango da, *La casa mágica* eta domekan arrastiko bostetan ikusi daiteke.

Igorreko Kultur Etxean, karteldegian dagozan pelikula bi proiektetan dira zapatu-domeketan. Nagusientzakoak zapatueta edo domeketan ikusi daitezke, eta batez be umeen gustukoa izan daitekena, domeka arrastietan.

andren berbaldia eta Vinagre de Moderna taldearen kontzertua; 17:00etan, martxea Basaurirantz.

22:00etan, zinea *Mr. Holmes*. Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etan, Kofradien arteko Bola Txapelketea. Altzustako bolalekuan. Ondoren parrilladea Altzustako txokoan.

URRI BIGARRENAK 4
AREATZA

Mendi ibilbidea: "Marrualdi garaia". Sasoi honetan oreinak eskeitzen daben ikuskizunak gozatzeko urtekerea Ubide inguruan. Parketxeak antolatuta.

IGORRE

11:00etan, Igorreko III. Duetloi Herrikoia. Eskoletan.

17:00etan ikusle guztiarentzako zinea, *La casa mágica* (euskeraz). Kultur Etxean.

19:30ean, zinea *Mr. Holmes* Kultur Etxean.

BEDIA

08:30ean, umeen urtekerea. Urdaibaiko zeharkaldia eta Urdaibaiko Bird Center-era bisiteta. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta.

URRI BIGARRENAK 5
BEDIA

Hilaren 16ra arte, 2015eko lehenengo seihilekoan egindako ekintzen argazkien erakusketea.

URRI BIGARRENAK 7
ARANTZAZU

18:00etan, "Janari hondarrakaz sukaldatu" Alex Mujikaren eskutik. Kultur Gunean.

LEMOA

19:30ean, Jai Batzordeak jaien balorazioa egiteko batzarra udaletxean.

URRI BIGARRENAK 8
BEDIA

Jubiladuen eguna. Urtekerea Azpeitia-Loiola.

LEMOA

19:00etan, III. Hirigintza Jardunaldiak.

"Genero ikuspegia etxebizitza kolaboratiboetan". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

URRI BIGARRENAK 9
ARANTZAZU

San Fausto jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

URRI BIGARRENAK 10
AREATZA

20:00etan, Women in the Corner. The Bilus Moon bikotearen kontzertua. The Quiet Corner-en.

DIMA

08:00etan, Sisetan Mendi Martxea. Plazatik abiatuta.

IGORRE

22:00etan, zinea *Ricky* Kultur Etxean.

LEMOA

Hilaren 12ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Pirineoak. Aspe (2.640 m.), Collarada (2.883 m.), Pico de Malacara (2.268 m.).

URRI BIGARRENAK 11
ARANTZAZU

09:00etan, Mugarri Bira. Plazatik.

IGORRE

10:00etan Garbeko Azokea.

17:00etan ikusle guztiarentzako zinea *Los Minioms* Kultur Etxean; 19:30ean, zinea *Ricky* Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 14
AREATZA

19:00etan Areatzako Kultur eta Kirol Batzordeak antolatuta, Angel Larrearen berbaldia "Arratia inguruko ondarea III. XVII-XX. mendeak". Udal Aretoan.

URRI BIGARRENAK 15
LEMOA

19:00etan, III. Hirigintza Jardunaldiak. "Lemoako etxe hutsak kolaboratibo bihurtzeko lehen pausua" tailerra. Maraka. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Bogaboo-a eta sehaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

DANERIK

BEHAR BILA

Igorreztar euskalduna, Haur Hezkuntza eta administratzen ikasketak + kotxea + esperientziagaz, urri lehenengoaren 13tik aurrera, umeak zaindu, etxea garbitu eta beste hainbeste gauzatarako prest. Deitu 639 293 539 telefonora (Eider).

BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza

zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarriegaz. Ur lohiak garbitzeko komuna.

ARRATIAN. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerak urri bigarrenaren! Astean ordu biko klaseak, arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

TXELOA

2/4 edo 3/4 tamainua daukan txeloa behar dot. Aukeran gurago neuke alokairuan hartu. 689 327 003.

ZOZKETEA

Harrera zozketearen zenbaki sariduna 503. Irabazlea Mikel Intxaube.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Zertu Kultur Elkarteak emondakoa BEGITUREN kamisetea.


Maria Jesus Iturriaga (Artea)
Xabier Arana (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Afrikako sabanan bizi dan animalia.
2.- Kereila. Letra mutua. 3.- Boroa.
Taldea. 4.- Ezetza. Zelai. 5.- Pluralez,
igartua. 6.- Adaki, adar. Nobelioa.
7.- Latz. Konsonantea. 8.- Bokala.
Hegaluze. 9.- Gautu.

GOITIK BEHERA

1.- Letra bat. Moduan. 2.- Gixi falta.
Jostailua, tronpa. Bat erromatar.
3.- Bibliako emakumea. Ahul.
4.- Agertu. 5.- Kiroletan erabilten
dan berbea. Birritan, motorraren
zaratea. 6.- Bokala. Doan, debalde.
Neodimioa. 7.- Harroputz. Uranioa.



Topau lau hanka daukiezan animaliak.



AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

LEHENENKO URTEKO KUDATZA
%15ko DESKONTUA
ASEGURUAK
basolo Emaldi
FERRIN ACRANOTATZAA, S.A.
Abokatuak
☎ 620. 57.86.04
@ aslerabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Egin zaitez Begitu lagun!

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheko - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain ordoraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urrozku@euskatel.net

ZIGOR ITURBE

"Arkitekturea esperientzia bat da, biziteko gauza bat"

Zigor Iturbe igorretarra arkitektoa, ikerlaria eta musikaria

da. Aspaldi bizi da Bilbon baina arratiartzat dauka bere

burua eta ez dau Arratiagaz kontaktua galdu. Soinu

paisajeak ikertzen ditu, zelanbaist arkitekturea eta musikea

buztartuz. Aneika Ara musika taldean gitarra eta abotsa da.

Erredakzioa**Soinu paisajeak ikertzen do-
zuz, ezta? Azaldu zer dan
soinu paisajea.**

Ikertzen nabilana da soinuak edo soinu paisajeak ze harreman daukan espazio arkitektonikoa definituteko orduan. Kontzeptu bat dago "giroa" deitzean dana, "ambientea" gaztelaraz. Espazio bat definituterakoan soinuak gordeta daukan informazioa baztertuta geldituten da normalean. Adibidez, Bilboko Arenalean bazagoz eta umeak olgetan badagoz eta espazio horren argazki bat ateraten badozu, argazki horretan ez da islatzen benetako gertakizuna: trafikoa zaratzea izela dala.

Nik ez dodaz baztertuten beste zentzumenak, baina kontuan izan behar da belarria, informazio asko dago hor gordeta-eta. Bizirik irauteko soinua ikusmena baino askoz garrantzitsuagoa da, ikerketa askok frogatu daben moduan. Eta lehenago, Euskal Herrian hizlari kultura geunkan. Hortik doa apur bat ikerketea.

Soinua eta arkitekturea lotzean dabezan esparru asko dagoz: akustika arkitektonikoa alde batetik, sano gai teknikoak; bestetik, soinu paisajeen idea humanistikoagoa, ambientearen definizio horretan soinuak gertakizunak zer esangura daukan, arkitektureari zer emon edo kentzean deus...

Arkitekturea esperientzia bat da, ez da plano batzuk egitea edo argazki bat ikustea, biziteko gauza bat da. Eta soinuak informazioa dauka eta espazioa definituten

dau; beraz kontuan hartu beharrekoa da.

Gainera arkitekturearen kasuan espazio bat formalki definituten dozunean akustikeagaz harreman zuzena dauka, forma batek akustika bat emongo dau eta akustika bat bilatuten forma bat emongo jako espazioari. Zoritxarrez hemen ez jako arretarik ipinten. Munduko Osasun Erakundeak estimatzen dau Europen 200.000 persona inguru hiltzen dirala urtean zarateari esposizio luzeak ondorioztatutako gaisotasunak jota. Denpora luzez zaratea entzuten egon ezker, hipertensioa edo bihotzekoak emoteko arriskua dago. Datu horreek larriak dira.

Orduan, ohitura osasungarrien artean, kirola egitea dagoan moduan, eguneroko denporatxo baten leku isil baten, isilik egotea egongo litzateke?

Bai. Kasu horretan eraikuntzen kode barriak, gero eta gehiago eskatzen dau akustikoki isolatuta egotea, bai barrutik kanpora, bai kanpotik barrura, zaratea ez sartzeako.

Keja pilo bat dago Bilboko Udalean zaratea dala eta.

Zeintzuk dira Arratian daukaguzan soinu paisajeak?

Ez dakit Arratian zein puntutaraino dagoan ikertuta, ez dira beharrezkoak eta. Zaraten Mapa Estrategikoa derrigorrezkoa da, baina zaratea bakarrik ikertzen dau eta soinu paisajea eremu zabalagoa da. Igorreko kasuan, bariantea egin zanean, zaratearen azterketea egin zan eta hor mapa bat dago.

Orain Igorren ez dago zarata handirik, ezta?

Orain ez, baina nik gogoratzen dot umetan-eta zaratsua zala. Gu zentroan bizi ginan eta kamioi pilo-pasetan zan. Beste leku batera eroan dabez kamioiak eta behar-bada bertako biztanleak kejak izango ditue. Ez dakit. Baina orokorrean Arratian leku zaratsuek salbuespenak dira eta kamino nazionalaren ondoan dagoz.

Dana dala, 2003ko zaratearen legeak, kanpo ixten ditu obrak eta jai edo festiboak.

Hori izan leteke Arratiak daukan gauzarik bitxiena, soinu paisaje nahiko atseginak dituala. Nik uste dot jentea holango herrietara etorten danean bizitera horren bila etorten dala, lasaitasunaren bila.

**Arratiako arkitekturea zelan-
goa da? Badago arkitekturea
moderno esanguratsurik?**

Ez. Baina ez da Arratiako arazo bat, arkitektoaren ikuspegitik arazoa be ez da. Arbasoakanako lotura handia daukagu. Historikoki herri legeak daukagun konfliktua be herri askotan gertatzen da. Baserriagazko daukagu lotura handia, baserriak identitatea sortzean daualako. Arkitektureak holan funtzionatzen dau, norbanakoaren identitatearen erreflejo bat da.

Arratian badaukagu konfliktu hori isladatzen dauan eraikuntza? Hau da, eraikin modernorik baserriko iruditeriagaz?

Bai. Badagoz etxe blokeak baserrietako bigak lakoxeak margotuta daukien baserriko iruditeria egiteko. Ez da ezer barria, Greziako Partenoian eta antzerako eragiketarik ikusi daitezke, antxinagoko arkitekturea isladatzen da.

Nik uste dot hemen azkenenengo 20 urteetan asko eregi baina arkitekturea gitxi egin dala. Jente askok ez dauka argi arkitekturea eta arkitektoaren betebeharra zein dan.

Eta zein da betebeharrak hori?

Arkitekturea gai tekniko bezain humanista da. Edozein espazioren atzetik arkitekturea eta arkitekto bat dago. Askotan gauzak txarto egiten dira, baina beste askotan oso ondo.

Euskaldunok etxeagaz lotura identitario handia daukagu, baina hau be ez da euskaldunen kontu bat, ezta? Unibersala da?

Bai. Logikoa da unibersala izatea. Jantzen zaranean irudi bat sortzean

dozun legeak, etxeak be zureganako irudi bat emoten dau. Nik uste dot kanpora begira egitea gauzak, irudi bat emoten dogulako eta horren kontziente garalako, gizakiaren unibersaltasun bat dala. Eta hori etxean be islatzen da.

Bezero bat datorrenean gauza bat eskatzen, analisi psikologikoa egiten deusagu. Lehenengotik ulertu behar da bezero horrek zer gura dauan, ze jentea etorten da amaierako irudi batez eta askotan beste baten etxea gustau jakolako. Eta 50 urte eta bikokideagaz bakarrik bizi danak, 30 urte eta ume bigaz bizi dan beste batena- ren moduko etxea gura dau. Ba hor daukagu konfliktu bat.

Arkitektoaren lana, laguntzaile lana da. Jaso behar dau bezeroak benetan zer behar dauan eta zer gura dauan, berak uste dauanagaz bitarteko bat bideratzeko.

Baserria ez da norberarena, norbera da baserrikoa. Hori holan da euskaldunontzat?

Hori be kontu unibersala da, Europako hainbat herrialdetan emoten da. Nik uste dot linaje kontu bat dala. Zu zara ez-dakit-nongo etxe-ko edo... Baina kontraesan bat dago hor, ze etxe bat egin gura dogunean baserriaren irudikoa gura dogu, baina kotxea azken markakoa, edo telebista, plasma; ez daukagu ezelango dudarik. Hor salto kualitatiboa dago. Zergaitik egiten dogu baserri itxurako gauza bat, eta metro 1 x metro 1eko lehia, barbarako, ahal danean 3m.

x 3m.ko lehia bat ipini eta argia aprobetxau?

Plaza edo espazio publiko perfektua zein izango litzateke?

Herriak erabilten dauana. Erabilten ez dan espazio batek ez dauka zentzurik arkitekturean.

Soinuari eta musikeari bueltauz, Aneika Ara taldean jotzen dozu, ze musika egiten dozue?

Rock musika egiten dogu, ez naz oso etiketa zalea. Hirukotea gara: ni gitarra eta abotsa; Argibel Euba galdakaoztarrak bateria jotzen dau eta Alex Lopez amurrioztarrak, bajua. 2009 inguruan hasi ginan baina taldeak forma hartu eban 2011n, eta 2013an lehen diskoa plazaratu genduan Gaztelupeko Hotsak zigiluagaz. Azkenengo kontzertu esanguratsuenak Donostian eta Bilbon izan dira. Donostian, 2016 Kulturaren Hiria esparruaren barruan, eta Bilbon, Ibilaldian jo genduan maiatzean. Tartean, tabernetan eta abar egin doguz kontzertuak.

Zelan dago panoramea? Internetegaz ia ez da diskorik saltzean, taldeak kontzertuetatik bizi behar dira?

Diskoak ez dira saltzean. Diskoa aurkezpen bat izaten da. Panorama oso gatxa da. Jente on asko dago eta ekitea da bidea. Hortik bizitea bada planteamentua oso gogorra da, hortara egon behar dozu % 100ean eta. Eta atzetik dagoan bulego lana ia-ia sormen lana baino handiagoa da.



begitu
arratia ubide zeberio

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115